


Osasun Eskualde Oinarrizkoa

Valtierra-Cadreita



Observatorio de Salud Comunitaria de Navarra
Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokia



1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2017):	12.957
Zabalera:	218,93 km ²
Nafarroa2000 zer eskualdetakoa:	Erriberagoiena (ikus mapa)
Udalerriak:	Arguedas, Cadreita, Milagro, Valtierra, Villafranca

2. Komunitatea eta osasuna

Valtierra-Cadreitako eskualde oinarrizkoko biztanleriaren piramideak erraboil itxura du; 35etik 55 urte bitarteko biztanleak dira nagusi, nahiz eta oinarrian talde franko agertzen diren. Biztanleria maskulinizatua ageri da tarteko adinetan. Valtierra-Cadreitako eskualde oinarrizkoak handienetakoa du muturreko pobrezia arrisku tasa (%11,0); Nafarroako batez bestekoaren oso antzekoak dira, berriz, eskualde oinarrizkoko gainerako aldagai soziodemografikoak.

Valtierra-Cadreitakoa dago emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean, 6 hilabetetan amagandik edoskitzen duten haurrei dagokionez (%52,3) eta emakumezkoen antsiolitiko eta antidepresiboen kontsumoari dagokionez (%19,0). Kontrara, berriz ere Nafarroako batez bestekoaren oso antzekoa da eskualde oinarrizkoaren mailan kalkulaturako gainerako osasun adierazleetan.

Nafarroa2000 zonifikazioan Valtierra-Cadreitako eskualde oinarrizkoa, nagusiki, Erriberagoieneko eskualdean dagoenez, aurrekoek gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Erriberagoienari dagozkion adierazleak, bizimoduei, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik ateratak. Erribera Goieneko eskualdean emaitza hoberenak agertzen dira gazteen alkohol kontsumo intentsiboari dagokionez (%28,2). Kontrara, eskualde honek emaitza okerrenak agertzen ditu tabakoaren eguneroko kontsumoari dagokionez 14 urtetik goitikoen artean (%25,0), bereziki gazteen artean (%28,4), baita gazteen sedentarismoari dagokionez ere (%27,5).


3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hay da, Osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonak, komunitateek eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesis).

[-> Ikus eskualdeko aktiboaren mapa](#)

4. Adierzleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierzle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrizkoen multzoaren aldera. ADierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanes gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), behatokiaren webgunean.

Grupo	Indicador	Periodo	Nº casos		Valor		Media		Peor	Mejor
			Zona	Zona	Zona	Navarra	Peor	Mejor		
Faktore soziodemografikoak	1. Jaiotza tasa	2015	107	8,3	9,4	3,7	27,0			
	2. 14-19 urteko ama duten jaioberriak	2011-2015	10	5,9	5,4	16,7	0,0			
	3. Gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten gazteak #	2011	269	8,3	9,2	15,7	6,7			
	4. Langabezia tasa #	2016	-	12,4	12,5	14,5	7,9			
	5. Muturreko pobreziaaren arriskuaren tasa	2015	-	11,0	8,8	16,6	4,7			
	6. Zahartzaroko mendekotasun indizea	2016	2.773	33,7	29,5	63,9	2,7			
	7. Bakarrik bizi diren > 80 urteko emakumezkoen etxeak	2016	-	40,3	39,0	49,1	15,8			
	8. Bakarrik bizi diren > 80 urteko gizonezkoen etxeak	2016	-	20,3	19,1	35,1	10,3			
Bizimoduak	9. Partez edo guztiz amagandik edoskitzen duten 6 hilabeteko	2015	65	52,3	61,2	44,4	80,0			
	10. Sedentarisinoa gazteetan (14-29 urte) #	2013	33	27,5	20,2	27,5	16,0			
	11. Alkoholarekin kontsumo intentsiboa gazteetan (14-29 urte) #	2013	41	28,2 *	37,8	45,1	28,2			
	12. Tabakoaren kontsumoa gazteetan (14-29 urte) #	2013	41	28,4	22,6	28,4	19,6			
	13. Tabakoaren eguneroko kontsumoa #	2012	50	25,0	20,5	25,0	19,2			
	14. Antsiolitikoaren eta antidepressiboaren kontsumoa emakumezkoetan	2016	1318	19 *	17,7	21,9	11,7			
	15. Antsiolitikoaren eta antidepressiboaren kontsumoa gizonezkoetan	2016	576	9,0	8,6	12,5	7,3			
Gaixotze-tasa	16. Haurren obesitatearen prebalentzia (0-5 urte)	2015	27	4,6	4,3	8,7	2,0			
	17. Diabetesa diagnostikaturiko pertsonen prebalentzia	2017	856	7,5 *	7,1	9,0	4,6			
Osasun Sistema	18. HbA1c-ren neurketa duten diabetikoak	2016	644	74,5 *	67,8	47,4	94,2			
	19. TA-ren neurketa duten hipertentsoak	2016	1.507	67,9 *	65,4	49,9	90,7			
Heriotza-tasa	20. Emakumezkoen bizi-itxaropena jaiotzean	2008-2015	-	86,1	86,2	83,6	87,6			
	21. Gizonezkoen bizi-itxaropena jaiotzean	2008-2015	-	79,9	80,1	78,0	84,1			

Adierazleen iturria: 1-2: Bizt. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizt. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errolda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Nafarroako Erriberagoineneko adierazleak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 7 balio, 3, 4 eta 13. adierazleetan; 6 balio, 10-12. adierazleetan.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduaren, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleentarako egindako kontrastea). **1.** Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. graduako ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruhilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobreziaaren atalasetik behara egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobreziaaren atalasea, 2015ean: 5150 €); **6.** ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduera fisiko urria edo batere egiten ez duten 14 – 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 eguneko kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); **12.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; **14 eta 15.** Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepressiboak (T. gordina: emakumezkoak 21,7 eta gizonezkoak 9,0); **16.** Obesitatearen prebalentzia doitu 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score $\geq +2$); **17.** 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doitu (T. gordina: 8,5); **18.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatuen neurketa (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotzatasen arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.